



# 8. TOPAKETAK

## FUNDAMENTALISMOEI BURUZ

FEMINISMOAK, ANTIARRAZISMOA ETA ERRESISTENTZIAK IPAR ETA HEGO GLOBALETIK

APIRILAK 23-24 2026 DONOSTIA

### PROGRAMA

09:00-09:30 Harrera eta materialen banaketa

09:30-09:45 Ongi-etorria

09:45-11:00 **Irekiera elkarrizketa: "Justizia zigorgabetasun eta huts egindako erakundearen garaian"**

**Gidaria:** Laura Arroyo Gárate, kazetaria eta komunikatzaile politiko. Canal Red-eko "El Tablero" tertulia politikoko zuzendaria eta gidaria, eta RTVEko kolaboratzailea.

**Solasaldian:** Irene Zugasti Hervás, politologoa, ikertzailea eta nazioarteko harremanetan, segurtasunean eta komunikazio politikoan espezializatutako analista. Ohiko kolaboratzailea CTXT, El Salto eta Público hedabideetan, eta "Esto no es una guerra: Feminismo insumiso frente al rearme y al genocidio" liburuaren egilekidea.

11:00-11:30 Atsedendaldia

11:30-13:00 **Mahai-ingurua: "Mugetatik auzoetara: beldurraren politikak, militarizazioa eta arrazismo instituzionala"**

**Partaideak:** Mugen militarizazioa eta beldurraren politikak Europar Batasunean. Ainhoa Ruiz Benedicto (Delàs Bakearen aldeko Ikasketa Zentroa eta Bretxa Observatori).

**Arazakeria instituzionala, sekuritizazioa eta arrazismoaren eraikuntza koloniala.** Salma Amazian, idazlea eta ikertzailea.

**Sekurismoa eta punitibismoa ikuspegi feminista batetik: kontrol soziala, zigorra eta bazterketa.** Begoña Zabala, abokatua eta militante feminista.

**Dinamizatzailea:** Hayar Samadi -Euskadiko Bidaya Emakume Musulmanen Elkarte.

13:00-14:00 **Mahai-ingurua: "ZONA WAO. Zinema eta artea eraldakuntzarako"**

**Zona Wao proiektzioa:** 50 urte baino gehiago daramatzate petrolio-konpainia nazionalak eta nazioartekoek planetako biodibertsitate handieneko Amazoniako gunetatik petrolio atzeratzen, komunitate indigenen bizitzak Ekuadorko Gobernuaren konplizitatearekin mehatxatuz. Sakrifizio eremu izenez ezagutzen dira.

**Solasaldia:**

**Alexandra Almeida -Acción Ecológica-** Ekuadorko erakunde ekologikak 40 urte daramatza pertsonen, herrien eta naturaren eskubideen alde, eredu estruktivistaren, agronegozarioaren, patriarkalaren eta kolonialaren aurrean.

**Nagore Eceiza Mujika.** Donostiako zinemagilea, El Santo Films-en sortzailea eta zuzendaria, dokumental sozialetan espezializatutako zinema independentearen ekoizlea. "Zona Wao"-ren zuzendaria.

**Dinamizatzailea:** Medicus Mundi.



### HELBURUAK

- 1 Publikoa **fundamentalismoen aurkako borrokara** hurbiltzea, Ipar eta Hego globaleko erakunde eta mugimenduen arteko topaketa eta elkarrizketa horizontalaren bidez.
- 2 Gaur egungo **arazo soziopolitiko desafiataileenei** heltzea, bai eta feminismoarekin, antiarrazismoarekin eta giza-eskubideen aldeko borrokarekin dituen elkarguneei ere.
- 3 **Justizia sozialaren aldeko eraldaketa-esperientziak** partekatzea eta sustatzea, zaintza kolektiboa balioesteko eta aliantzak indartzeko.

### NORI ZUZENDUA

- Unibertsitateko ikasle eta irakasleak.
- Giza-eskubideen alde lan egiten duten aktibistak eta erakunde feminista eta antiarrazisten ordezkariak.
- Berdintasuneko eta garapenerako lankidetzako teknikariak.
- Gaitegian interesa duen pertsona edo erakunde oro.



### PROGRAMA

09:00-09:15 Harrera eta materialen banaketa

09:15-09:30 (Bir)kokatzen

09:30-10:45 **Mahai-ingurua: "BIG TECH: misoginia eta arrazakeria IArean aroan"**

**Partaideak:**

**Nola IAK arrazismoa eta kolonialtasuna indartzen dituen.** Paula Guerra (AlgoRace - (Des)racializando la IA)

**Misoginia eta diskriminazio algoritmikoa: Metaren erantzukizunak Hego Globalean.** Priya Das (CREA erakunde feminista, India)

**Dinamizatzailea:** Pikara Magazine, teoria eta praktika feminista zabaltzeko aldirakaria.

10:45-12:00 **Mahai-ingurua: "ALERTA PINK WASHING! Bote-re-egiturak agenda feministak eta LGTBQ+ agendak bereganatzen."**

**Partaideak:**

**Pinkwashing, purplewashing eta homonazionalismoa: feminismoa boterearen zerbitzura jartzen denean.** Brigitte Vasallo, idazlea eta saio-idazle feminista.

**Palestinako LGTBQ+ erresistentziak pinkwashing eta zapalkuntza kolonialaren aurrean.** Ala' Mohammad Khaleel (ALQAWS for Sexual & Gender Diversity in Palestinian Society)

**Dinamizatzailea:** Klaudia Ugarte, Komunikatzaile feminista eta LUMAGORRI HAT kolektiboko kidea.

12:00-12:30 Atsedendaldia

12:30-13:45 **Mahai-ingurua: "Justizia erresistentzian: mugimendu sozialak kriminalizazioaren aurrean"**

**Laburmetraia:** International Dawn Chorus Day (15').

**Partaideak:**


**Abortatzea delitua denean: akonpainamendua, zaintzak eta desobedientzia feminista.** Manuela Ramos Mugimendu feminista (Peru)

**Bizitzari eustea espazio publikoan: Elikadurarako eta auzotarren autoantolaketarako eskubidea.** Kaleko Afari Solidarioak (Donostia)

**Dinamizatzailea:** Maitane Arnoso. EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea. "SOS Arrazakeria Gipuzkoa"-ko militantea.

13:45-14:15 Itxiera-dinamika eta agurra

14:15-15:00 Pisolabis



### AURREZ AURREKO PARTAIDETZA

0,5 - 1 kreditu



Doako izen-ematea apirilak 10 arte.

[www.medicusmundigipuzkoa.eus](http://www.medicusmundigipuzkoa.eus)

- Ingelesa-gaztelania-ingelesa aldi bereko itzulpena egongo da.
- EHUko ikasleentzat kreditu erdia edo osoa. (Info + web-orrian)
- Bertaratze-zurtagiriak egingo dira.

Psikologia eta HEFA Fakultateetako Areto Nagusia (EHU). Tolosa Hiribidea, 70. Donostia

943 40 47 40 - 688 78 34 90

[educ.gipuzkoa@medicusmundi.es](mailto:educ.gipuzkoa@medicusmundi.es)



@mmgipuzkoa



@medicusmundigipuzkoa


8. Fundamentalismoei buruzko Topaketa hauek hausnarke-ta kolektiborako gune gisa aurkezten dira, egungo testuinguru soziopolitikoa eta honek feminismoarekin, antiarrazismoarekin eta giza-eskubideen aldeko borrokarekin dituen elkarguneei aztertzeko. Fundamentalismoek gizarte-arau gisa pentsaera bakar eta aldaezin bat defendatzen dute, eta adierazpen kultural, erlijioso, ekonomiko zein politiko anitzetan ulertzen ditugu. Horiek guztiek ondorio ezin kaltegarriagoak eragiten dizkio gizateriari oro har, eta bereziki sexu- eta ugalketa-eskubideen bermeari.

Nazioarteko zigorgabetasunak eta erakunde demokratikoen ahultzeak markatutako testuinguru global batean bizi gara, non gerrak legitimatzen diren, genozidioak isilarazten diren eta segurtasunaren diskurtsoa eskubideak murrizteko eta desberdintasunak areagotzeko koartada gisa inposatzen den.

Ikuspegi feminista, antiarrazista eta justizia globalekoa oinarri hartuta, botere-logika horiek beldurraren politiketan, militarizazio-prozesuetan eta gizarte-mugimenduen kriminalizazioan nola artikulatzen diren aztertzea proposatzen dugu. Nazioartekoa eta tokikoa zeharkatzen dituzten dinamikak, desberdintasunak sakontzen dituztenak eta pertsona, kolektibo zein lurralde ahulenen eskubideak sistematikoki urratzen dituztenak.

Topaketa hauetan bizitzari eusten dioten erresistentziak ikusarazi eta balioetsi nahi ditugu: gizarte-mugimenduak, esperientzia komunitarioak eta alternatiba kolektiboak eraikiz antolatzen diren praktika feministak. Izan ere, zigorgabetasunaren eta autoritarismoaren aurrean, topaketaren, baikortasunaren eta antolaketa kolektiboaren alde egitea ez da inozoa, guztiz politikoa baizik.

## JUSTIZIA ERE ERRESISTENTZIAN ERAIKITZEN DELAKO!



Antolatzaileak



Laguntzaileak



Finantzailea

